



OÑATIKO UDALA

Telefonoa: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

ALKATE DEKRETUA

Nik, Mikel Biain Berraondok, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erreglamenduko 79 artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985ko Legeko 21.1.c artikulua (Toki Erregimeneko Oinarrien Legea) ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, honako hau agintzea erabaki dut:

.- Uztailaren 25ean, arratsaldeko 19:30etan, Ezohiko eta Presazko Plenoa egitea. Egun horretari beharrezko quoruma egongo ez balitz, bilera berriro deituko litzateke handik bi egunera, ordu berean eta deialdiarekin balera bidaliko den gai-zerrendarekin:

Ezohiko eta Presazko Plenoa egiteko arrazoiak honako hauek dira:

.- Batetik, hil honetako Pleno arrunta uztailaren 25ean egin beharko litzateke, hau da, hilaren azken ostegunean; egun hori jai eguna denez, bertan aztertu beharreko gaiak hurrengo Plenorako utzi beharko lirateke. Bestetik, zenbait gai presazkoak dira, eta bi hilabete atzeratzeak (abuztua tartean) eragina izango luke Udalaren funtzionamenduan. Gaiak honako hauek dira:

1.- **Oñatiko Udalaren 2012ko Kontu Orokorrak onartzea;** legez ezarritako epe barruan onartzea komeni da.

2.- **Lanpostuen balorazioa;** prozedura honi maiatzaren 2an hasiera eman zitzaien eta 3 hilabete pasa direnez erabakia hartzea komeni da, aipatutako hiru langileen balorazio berria onartu ondoren dagokien soldata kobratzen hasi daitezen.

Aurreko arrazoiak kontuan hartuz, uztailaren 25ean presazko ezohiko Plenoaren bilera bat egitea guztiz beharrezkoa ikusten dudanez, Alkatea naizen aldetik egun horretarako Plenoko deialdia egitea erabaki dut.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin, 2013ko uztailaren 23an.

ALKATEAK

Mikel Biain Berraondo